



Durangaldeko komunitate ukrainarrak kezka begiraten dio jaioterriko gerra giroari. Mykhaylo Strubitsky eskualdean bizi den ukrainarretariko bat da. 12 urte daramatza Atxondon bizitzen, lurretan lan egiten du eta Abadiñon dauka kuadrilla. Egunotan oso babestuta sentitu dela dio. Bere nahia bat eta bakarra da: gerra amaitzea. • 2-3

"Bizimodua Durangaldean daukat, baina bihotza Ukrainan"



Ume sahararrak euskal etxeetan hartzeko kanpaina, martxan

Durangaldea • Pandemiak eragindako urte biko parentesiaren ondoren, bueltan da Oporrak Bakean kanpaina. • 12



Koparen atarian

Kirola • Teknei Zornotzak Zilarrezko Lehen Kopako finala jokatu du bihar, Larrea kiroldegian, Ibiza taldearen aurka. • 20

Benita Uribarrena borrokalari antifaxista omenduko dute Durangon

Durango • Benita Uribarrena gogoratuko dute martxoaren 16an, bere izena daraman parkean, 18:00etan. Uribarrena borrokalari antifaxista Frantziara ebakuatu zuten 1937ko martxoaren 31ko bonbardaketaren

eraginez. Gero, Euskal Herriko borroka antifaxistatik Europako erresistentziara salto egin zuen. 2000. urtean kondekoratu egin zuten Frantzian, erresistentzian egindako lanagaitik. • 04



Martxoaren 1etik 31ra
bitartean
ESKAINTZA ARGITSUAK



SUKALDEAK - ETXEA - BAINUGELAK

SCHMIDT

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt



**Mykhaylo
Strubitsky**

Atxondo

UKRAINA | 1976

“Gerra amaitzea, horixe baino ez dut gura”

Mykhaylo Strubitsky ukrainarra Atxondon bizi da. 12 urte daramatza bertan, eta egunotan kezka handiz begiratzen dio bere jaioterriko egoerari. Familia eta lagunak ditu han

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Mykhaylo Strubitsky (Ukraina, 1976) Kiev hiriburutik 800 bat kilometro mendebaldera dagoen Bedrykivtsi herrian jaiotakoa da. Ama, neba-arrebak, ilobak eta lagunak han dauzka, bere sorterrian, oraingoz han ez dago borrokarik eta. Strubitskyk 15 bat urte daramatza Durangaldean bizitzen. Atxondon bizi da, bertara ezkondu. lurretako Mugarri Basolan enpresan lan egiten du, mekanikari, eta lagun ugari dauka Abadiñoako Traña-Matiena auzoan. Oso esker oneko dago Durangaldeko herritarrek egunotan emandako laguntzagaz. “Ez nuen sekula ere pentsatuko hain babestuta sentituko nintzenik”, dio.

Gerrak ez du etenik Ukrainan. Zelan zaude?

Oso txarto. Ez naiz sekula ere hain triste egon. Ezin dut deskribatu sentitzen dudana. Ez nuen sekula ere halakorik espero. Gerra izaten ari den eskualdeetan lagun asko daukat. Orain aste batzuk Errusiak

kaleratu zituen mezuak antzerkia zirela pentsatzen nuen, tentsioa sortzeko, baina ez nuen uste kontua honaino ailegatuko zenik. Oso gogorra da. Nire bizimodua hemen daukat, baina bihotza han.

“Ni jaio nintzen eskualdeko herritarrek hirietatik alde egiten dabilzanak harreran hartzen dabilta; janaria prestatzen dabilta, umeak zaintzen...”

Baduzu familiarik han?

Bai. 39 urteko anaia dut, eta 48 urteko arreba. Anaia bere bikotearekin bizi da. Arreba, gure amagaz eta bere alabagaz. Baserri bat dugu han, eta ez dute handik alde egin gura. Ez dute ez Ukraina ez etxea abandonatuko. Han, inguruko eskualdean, denek argi dute hori, nire familiarik eta

bizilagunek. Egunean hainbat bider berba egiten dut telefonoz eurekin.

Zer diotsue familiako kideek?

Lasai egoteko. Baina zelan egongo naiz lasai gertatzen dabilena ikusita? Ezin naiz lasai egon.

Ez dute herrialdea abandonatuko?

Ez. Jende askok alde egin du Poloniara, Errumaniara. Baina badago alde egiteko asmorik ez duen beste jende bat. Begira, lehengusuak ditut han, Kharkiv hirian bizi zirenak. Enpresa bat zuten han. Hiririk alde egin behar izan dute eta nire jaioterriko eskualdera mugitu dira. Baina ez dute Ukrainatik irteteko asmorik. Kieveko eta Kharkiveko herritar ugari dabil gure eskualdera heltzen. Eta gure eskualdeko herritarrek haiek harreran hartzen dabilta. Haiei etxebizitza eskaintzen, janaria prestatzen, umeak zaintzen... Une honetan, Ukraina osoan ez da eskolarik ematen. Ia industria guztia geldirik dago. Dendak ere, berdin.

Gizonezkoek ezin dute herrialdetik alde egin.

Ez. 18tik 60 urtera bitarteko gizonek ezin dute Ukrainatik irten. Probintzia batetik bestera dabilta, edo gerrako frontera joandakoak dira. Gerran daude, nahiz eta Ukrainak ez duen sekula ere gerrarik gura izan.

“Orain ez, baina 2014an gerrara joateko deia jaso nuen. Lan kontratuak bidali behar izan nituen hara joatea ezinezkoa zela adierazteko”

Zelakoa da gerra giroa zure eskualdean?

Ni jaio nintzen Ukrainako aldean ez dago borrokarik. Esango nuke Putini ez zaiola interesatzen. Ukrainaren mendebaldeko aldean ukrainarrak dira nagusi. Intependentistak dira denak, herriaren subiranotasuna aldarrikatzen dutenak. Eta Putini ez zaio hori interesatzen. Ekialdeko aldea interesatzen zaio, Errusiarragoa den eskualdea. Gutxi gorabehera, Errusiatik Kieverainoko tartea. Ez du gure aldea gura, ezingo lukeelako gobernatu. 2014an, Euromaidan deituriko protestak puri-purian zeudenean, nire lehengusuek, bizilagunek,

manifestazioetan parte hartu zuten. Eta Kiev, Odesa eta Kharkiv hirietan errusiarzaleak ziren nagusi. Baina gauzak aldatzen dabilta. Erregimenarekiko kritikak agerian geratzen dabilta. Hiri nagusietako herritarren artean aldaketa gertatzen dabil. Adibidez, gure belaunaldiak errusiera ikasi zuen, baina nire anaiak, gazteagoa denak, ez daki errusieraz.

Jaso duzu gerrara joateko deirik?

Orain ez, baina 2014an jaso nuen, Krimeakoa gertatu zenean. Erre-serba zerrendan sartu ninduten. Gutun bat bidali zuten amaren etxera. Garai hartan ez nengoen ezkondu eta hainbat paper bidali behar izan nuen hara, armada joatea ezinezkoa nuela adierazteko. Lanean nenbilela frogatu behar izan nuen, nominak eta kontratua erakutsita. Bestela, desertore izendatuko ninduketen. Handik urtebetera aita hil zitzaidan, minbiziagaz. Ezin izan nintzen hiletara joan. Amak ez joateko esaten zidan, aireportuan lurreratzeagaz batera atxilotzeko arriskua nuela. Orain ez didate deituko. Agintariek esan dute ez dituztela atzerrian bizi direnak gerrara deituko.

Noiz egon zara Ukrainan azkenengoz?

Hamar bat urte izango dira hara azkenengoz bisitan joan nintzela. Emazteak eta biok uda honetan joan gura genuen. Familia

eta herrialdea erakutsi gura nizekion, baina, jakina, dena aldatu da.

Zelan gogoratzen duzu zeure jaioterria?

Oso pozik bizi nintzen, zorionsua nintzen. Dena nuen han, lana ere bai. Ez nuen ezer falta. Euskal Herrira aldi baterako baino ez nintzen etorri, urtebeterako-edo, ez nuen hemen geratzeko asmorik. Diru apur bat egin eta berriro ere Ukrainara bueltatzea zen nire asmoa. Baina, denboragaz, hemen egin dut neure bizimodua. Lagunak ditut, kuadrilla, eta emaztea ere hemen ezagutu nuen eta hemen geratu naiz. Jaioterriari dagokionez, oroitzapen piloatortzen zait burura. Familiako 30-40 bat kide elkartzen ginen ospakizunetan. Baten baten etxean elkartu, gero besteren baten etxean, gero beste batean, gero bizilagunarenean. Elkarregaz abesten genuen eta elkarregaz dantza egiten genuen. Ospakizunen oroitzapen izugarri politak ditut.

Herritar errusiarrek ez dute gertatzen dabilenaren errurik. Lagun errusiar asko dut. Nire ustez, Putin da arazoa

Zelan sentitzen zara euskaldunen artean?

Izugarri ondo, etxean lez. Atxondon herritar guztiek ezagutzen naute. Amak ere galdetzen dit zelan nagoen. Eta esaten diot hemen jaio banintz lez bizi naizela. Hizkuntza dela aldatzen den bakarra. Emazteak Durangora bizitzera joan gura luke, baina nik Atxondon geratu gura dudala esaten diot. Hemen mendiak eta zelaiak daude, paisaia berdea. Herri txiki bat da, Ukrainako nire jaioterriaren modukoa.

Gerra dela eta, zein irtenbide gura duzu?

Gerra amaitzea. Ez dut besterik gura. Eskuko telefona piztu, Interneten sartu, eta gerra amaitu egin dela dioen albiste irakurri gura dut. Mundu guztiak gura du hori. Hortik aurrerako guztia bere kabuz etorriko da. Herritar errusiarrek ez dute gertatzen dabilenaren errurik. Lagun errusiar asko dut. Nire ustez, Putin da arazoa.

Zer ikasi dezakegu gertatzen dabilen honetatik?

Elkarri lagundu behar diogula, elkarren arteko konfiantza landu behar dugula.

“Ukrainako sei errefuxiatu ekarri ditugu Poloniatik, ama bi eta euren seme-alabak”

Zornotzako herritar bik errefuxiatu ukrainarrak hartu eta Espainiako estatura eraman dituzte



Mikel Mugarza, Zornotzako San Mlgel kalean.

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Mikel Mugarza Rodríguez zornotzarra eta bere emaztea Poloniarra joan ziren joan zen astean. Ukrainako gerratik ihes egin duten sei errefuxiatu hartu zituzten, kotxe banatan, eta 30 orduan gidatu eta gero Espainiako estatura bidean ipini zituzten. Orain, bikoteak berriro joan gura du Poloniarra, emaztearen senide eta lagunak hartzera. Azken hauek zailtasunak dituzte Kievetik irteteko.

Zerk bultzatu zaitu Ukrainaren eta Poloniaren arteko mugara joan eta gerrako errefuxiatuak hartzera?

Emaztea ukrainarra da. Gerra hasiko zela aurreikusi genuen eta mailetak prestatu genituen inbasioa gertatu baino aste bi lehenago. Eguenean, otsailaren 24an, dena hasi zenean, lanetik irten eta Medykarantz irten nuen, Poloniaren eta Ukrainaren arteko mugarantz. Zapatu eguerdian ailegatu nintzen hara. Han emaztearen senideekin eta lagunekin batzea zen nire asmoa. Haiek hona ekartzeko asmoa nuen. Baina Kiev hiriburuan bizi direnez, eta zailtasunak zituztenez handik irteteko, ezin izan zuten Ukrainatik irten. Bidaia hartatik esku

hutsik ez bueltatzeko, Espainiako estatura helmuga zuten errefuxiatuak hartu nituen. Emaztea eta biok ibilgailu banatan joan ginen hara. Sei errefuxiatu hartu genituen. Ama bat eta seme-alaba bi nik, eta ama bat eta alaba bi emazteak. Guadalajara eta Cordoba zituzten helburutzat.

Beraz, emaztearen senideak eta lagunak Kievetik irten ezinda daude. Badirudi senitarteko eta lagun batzuek laster irten ahalko dutela hiritik. Badirudi korridore humanitarioek hori ahalbidetuko dutela. Hori horrela bada, berriro ere joango gara mugara, haiek

hartu eta hona ekartzeko. Dena dela, batu ditzakegunak baino lagun eta senide gehiago ditugu han.

Zelakoa da errefuxiatuak hartzeko mekanika? Zein protokolo jarraitu behar da?

Emazteak hango boluntario batzuekin berba egin zuen. Berak kudeatu du dena. Boluntarioen artean ukrainarrak daude, baita poloniarrek ere. Zuk adierazten duzu errefuxiatuak hartzeko prest zaudela, eta dena martxan ipintzen da. Ekarki genuen errefuxiatuetariko baten lagunagaz berba egin genuen. Honantz etortzea eskaini genion, baina ezetz erantzun zigun, egun batzuetarako lagun baten etxean geratzeko zela. Gerrak egun gutxi iraungo zuelakoan zegoen. Guk Varsoviatik eta Medyka ondoko beste herri batek hartu genituen errefuxiatuak. Ekarki genituenak Espainiara eraman genituen, bertan ezagunak edo senitartekoak zituztelako. Baina ez da ohikoa. Errefuxiatuek ez dute Espainiako estatura helmuga legez gura izaten. Alemania edo Praga (Txekiar Errepublikak) gura izaten dute. *Ametz amerikarra* deituriko hori dagoen eran, *amets europarra* ere badago.

Zelakoa izan zen handik Espainiara-ko bidaia?

Batetik, nekagarria. 30 orduan gidatu nuen. Errusieraz apur bat berba egiten dut, oinarrikoa, eta bidaian zehar horri eskerrak komunikatzen ginen. Elkarrizketa konplikatzen zenean, emazteari deitzen nion, eskuko telefonora, itzulpen lanak egin zitzaizkion. Bestetik, kontrastez beteriko bidaia izan da. Nik ekarri nuen ama burumakur zegoen, triste, arduratuta. Baina bere ume biak, ostera, txikiak direnez, olgetan eta algaraka etorri ziren kotxean. Gutxienez, dena ez da galdu.

Ukrainako lehenengo errefuxiatuak Berrizko aterpetxera heltzen hasi dira

Asteon heldu da lehenengo familia Berrizera. Familia gehiago hartzeko asmoa dute

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2018ko irailean, Eusko Jaurlaritzak aterpetxea zabaltu zuen Berrizen, adin txikikoen kargu dauden emakumeak, bakarrik dauden emakumeak eta gaixorik daudenak hartzeko. Harrezkero, hainbat eta hainbat errefuxiatu pasatu da bertatik, zenbait herrialdetako migratzaileak. Asteon, Ukrainako lehenengo errefuxiatuak heldu dira bertara. Martitzenean heldu zen Ukrainako lehenengo familia aterpetxera. Aterpetxeko ardu-



Berrizko aterpetxea.

radunetariko batek ANBOTOrri azaldu dionez, Berrizko zentrorra asteon heldu den familia "lur jota dago".

Berrizko aterpetxea egokitzen dabilta, datozen egunetan familia gehiago hartzeko asmoz

Oñatiko aterpetxetik bideratu dute familia hau Berrizko zentrorra, eta ez da bertara helduko den bakarra izango. Eusko Jaurlaritzak zentroa egokitzen dabil dagoeneko, eta datozen egunetan beste familia batzuk hartzeko asmoa dutela jakinarazi dute. Beste hiru bat familia gutxi gorabehera.

Benita Uribarrena, berak margoturiko koadroaren aurrean. **MARINA FUSTER**

Benita Uribarrena parkearen inaugurazioan durangarraren familia osoa batu zen.

“Benita Uribarrena Euskal Herriko borroka antifaxistatik Europako erresistentziara salto egin zuen lehenengo erresistentea izan zen”

Benita Uribarrena Bollaín borrokalari antifaxista durangarra omenduko dute bere izena duen parkean, martxoaren 16an 18:00etarako antolatu duten ekitaldian



MARIA GOROSARRI

EHUko irakaslea

DURANGO • JONE GUENETXEA

Benita Uribarrena borrokalari antifaxista durangarra omenduko dute haren jaiotzaren mendeurrenean. Maria Gorosarri Durango 1936 kultur elkarteko kideak aurkeztuko du ekitaldia martxoaren 16an 18:00etarako antolatu den ekital-

dian. Frantziako erresistentzian ere parte hartu zuen Bigarren Mundu Gerran, eta hori dela eta, kondekoratu egin zuten.

Zelan ezagutu zenuen Benita Uribarrenaren istorioa?

Uda batez Alemanian ikertzen nembilela, B. Uribarrena Bollaín izena aurkitu nuen emakume antifaxistek buruzko liburu batean. Bertan zioenez, durangarra zen. Durango 1936 elkartetik pentsatu genuen pertsona hori nor zen jakin behar genuela. Jakin gura genuen urte tarte horretan zer gertatu zen. Jose Anjel Orobouurrutia Durangoko artxiboko arduradunagaz begiratu genuen B. Uribarrena Bollaín nor zen. Gerra aurreko erroldan agertzen zen, baina gerra ostekoan bere familia ez zen agertzen. Horrela jakin genuen ez zirela bueltatu. Baina familia osoaren izenak lortu genituen. Beraz, Euskal Herriko borroka antifaxistatik Europako

erresistentzia antifaxistara salto egin zuen lehenengo erresistentea izan zela konturatu ginen.

Zelan identifikatu zenuten bere familia?

Benitaren loba bat topatu genuen eta haren alabagaz hartu-emantetan ipiniko gintuela esan zigun. Ordurako jakin genuen Benitaren familia osoak erresistentzia antifaxistan jardun zuela. Eurek ere herrimina zuten eta familiaren istorioa idatzita eta dokumentatuta zuten. Honen bitartez, Frantzian bizitzen geratu zen beste familia baten istorioa ere ezagutu genuen.

Zelakoa izan zen Uribarrenaren bizitza?

Uribarrena-Bollaín familiaren inflexio puntua 1934ko greba izan zen. Grebari eta iraultzari erreprezioz erantzun zieten, eta bere aita errekarra sarrarazi zuten, gauetz. Horren ondorioz, pneumoniagaz hil zen. Durangon egin zen lehenengo ehorzketa zibila berea izan zen. Aitaren beste familiagaz eten egin

zen hartu-eman eta ordutik aurrera ama eta seme-alabak geratu ziren. Frantziara ebakatu zituzten. Hara heldutakoan, hemen geratu ziren borrokalari babesa ematen jarraitu zuten eta 1940an naziek Frantzia okupatzerakoan, han ere erresistente legez jardun zuten. Sasoi hartan, estatuko jendeari irte-ten lagundu zioten.

Zelan laguntzen zieten hemengoei?

Benita Irunetik estatura sartzen zen, eta irten behar zuen gizonaren emaztearen papera egiten zuen. Behin, trenean zihola, parean zuena guardia zibila zen. Benitari galdetu zion ea nongoa zen, eta, Durangokoa zela erantzuterakoan, guardia zibilak esan zion bera Durangon destinatuta zegoela. Unai Iturriagak estualdi horri buruzko komikia egin zuen. Beste momentu batean, Benita atxilotu egin zuten eta leihotik irtenda ihes egin zuen. Leporatu gura zizkieten karguak saihesteko, aldean zeramatzan paperak jan egin zituen. Estualdi larriak pasatu zituen bere bizitza salbatu ahal izateko.

Noiz bueltatu zen Durangora?

Benita beste erresistente batez ezkondu zen, Armando Fusterregaz. Valentziakoa zen. Bidaia bat egin zuten eta Durangotik pasatzeko eskatu zuten. Bere etxea izandakotik, eta Ezkurdiko kioskoaren lekutik pasatu zen. Goizean bakarrik egon

ahal izan zen, gizona gaixotu egin zen eta. Bitxia da Durango zelangogoratzen zuen. Ezkurdiko plaza ingurua margotzen zuen. Erretratuak ateratzeko, koadro hori atzean ipini gura izaten zuen.

Uribarrena-Bollaín familiaren inflexio puntua 1934ko greba izan zen

'Benita la periodista' esaten zioten.

Sasoi hartan irakurtzen zekien andra bakarrenetarikoa izango zen. Egunkariak saldu eta irakurri egiten zituen. Familiakoek kontatzen dute errepublika aldarrikatu zenean Benita bera albiste hori kontatzen ibili zela, egunkariak saltzen zituen lekuan. Kontatzen dute gaua txakurtegian eman zuela. Imajinatzen dut oraindik ez zegoelako emakumeentzako kartzelarik.

Marina Fuster alaba Benitari egindako omenaldira etorri zen, 2012an.

Marina eta bere senarra oso emozionatuta etorri ziren. Parkea inauguratu zenean, jendea hainbat lekutatik etorri zen. Frantziako Tolosatik, Ipar Kataluniatik, Bartzelonatik eta Madrildik. Denak Durangon elkartu ziren lehenengoz.

anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2022ko martxoak 11a
20. urtea - 885. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

2015 **Bikam**

PEFC kiurtagia
Produktu hau
kontsumatzaile
sustentagarriak
de eta Baso Kiurtagia
sustentagarri
kiurtagia da
www.pefc.es

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Gremioen gida

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK



www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

Instalatazile baimendua

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena

M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza

Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA - AIREA - GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubioan, 8 IURRETA
946 202 768

Arzubia 10 B Industrialdea, 13-14 paboloak ABADIÑO
944 071 791 - 692 859 779

Zurgintza

ATERPE AROTZAK
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Dekorazioa

JAIObarnizatuak

Armairu eta era askotariko
altzairuen lakadura eta
guztietako zaharberritzeak
egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A · BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 · Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!



DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango Udalak 800.000 euro ipiniko ditu datorren urteko aurrekontu parte hartzaileetan erabiltzeko. 600.000 euro herriko sei auzo eremutan erabiltzeko dira, 100.000 euro bakoitzean. Gainera 200.000 euroak herri osorako proiektu orokorretarako erabiliko dira. Prozesuak hainbat fase izango du. Egun gutxi barru zabalduko da lehenengoa.

- **LEHENENGO FASEA:** Lehenengo fasea proposamenak aurkezteko izango da. Udalari ideien bat edo proiektuen bat aurkeztu gura dionak partehartu.durango.eus web orrira jo beharko du, martxoaren 15etik apirilaren 3ra. Bertan, udal eskumeneko edozein eremuri loturiko interes orokorreko proposamenak aurkeztu ahal izango dira.

- **BIGARREN FASEA:** Apirilaren 11tik maiatzaren 1era bozketak fasea egongo da. Herritarrek gustukoak dituzten bost proposamenak aukeratu beharko dituzte, "atsegin dut" botoia sakatuta.

- **HIRUGARREN FASEA:** Udaleko bulego teknikoak puntuaziorik altuena duten proiektuak hartu eta euren bideragarritasuna aztertuko du, ikuspegi teknikoak eta juridikoak. Maiatzaren 3tik ekainaren 3ra arteko epea izango dute horretarako.

2023ko udal aurrekontuetako 800.000 euro zertan erabili erabakiko dute durangarrek

Durango Udalak aurrekontu parte hartzaileen bide orria zabaldu du. Zabalik dago proposamenak aurkezteko epea



Iker Urkiza eta Jorge Varela zinegotziak.

- **LAUGARREN FASEA:** Durangarrek botoa eman beharko dute langa juridikoak eta teknikoak igarotzea lortu duten proiektuen artean. (Ekainak 10-26).

- **AZKEN FASEA:** Aukeraturiko proiektuak 2023ko udal aurrekontuan islatuta geratuko dira, diru poltsa agortu arteko aurrekontuagaz.

Informazio gehiago partehartu.durango.eus atarian eskuratu daiteke.

Informazio gehiago partehartu.durango.eus atarian eskuratu daiteke.

PERIaren akordiorako oinarriak "aurrera egiteko ezintasuna" ekarriko duela dio EAJK

Jeltzaleek diotenez, gobernu taldeak eta Jaurlaritzak adosturikoa "txarra" da. Herritarrek bozketara "benetako informaziorik" eman barik deitu dituztela kritikatu dute

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Durango EAJK "triste" begiratu dio tren geltokiaren proiektuari. Jeltzaleen esanetan, gobernu taldeak Eusko Jaurlaritzagaz lorturiko akordiorako oinarria "txarra" da, eta, epe motzera, "aurrera egiteko benetako ezintasuna" ekarriko lioke Durangori. Mireia Elkoroiribe bozeramaileak dioenez, gobernu taldearen planteamenduak Hiri Antolamendurako Plan Orokor berri bat onartzea ekarriko luke, eta, jeltzaleen esanetan, prozesu horrek "sei urteko geldineua" ekarriko luke. Hauek dira akordiorako oinarrian kritikatu dituzten beste puntu batzuk: San Agustin ospitale zaharra eta Pinondo Etxea "galtzea", eta "etxebizitza arloko udal politiken kudeaketa erabat galtzea". EAJK orain urte batzuk planteaturikoa berretsi du: indarrean dagoen PERIari heltzea gura du, proiektuak bere barruan eskaintzen dituen

moldaketarako aukerak baliatuta. "18 solairuko dorreak barik, beste era bateko eraikinak egin daitezke, baxuagoak, zabalagoak", dio Elkoroiribek. Jeltzaleek aurreratu dute gobernu taldearen proiektuarekiko alternatiba bat sortzen dabiltzala, eta laster emango dutela horren berri. Bestalde, gaur amaitzeko den herri galdeketa kritikatu dute. Euren esanetan, bozketak "gobernu taldearen proposamena baliozkotzeko antzerkia" da. "Herritarrek egiazko informaziorik barik bultzatu dituzte botoa ematera", esan dute.

EAJ gobernu taldearen proiektuarekiko alternatiba sortzen dabil; "laster" aurkeztuko du

BATXILERGOKO

ATE IREKIAK

Martxoak 11, 14 eta 15

ZATOZ GU EZAGUTZERA!

HITZORDUA ESKATU

94 681 00 50

<https://labur.eus/jesuitakdurango>

www.gualbiasesores.com

**Bezeroa, bere enpresako
kudeaketa eta bere
gogobetetzea dira
gure helburu nagusia**



- ✓ **Aholkularitza fiskala**
- ✓ **Kontabilitate-aholkularitza**
- ✓ **Merkataritza eta finantza-aholkularitza**
- ✓ **Lan-aholkularitza**
- ✓ **Kontu-auditoretza**
- ✓ **Aholkularitza juridikoa**

Zumalakarregi kalea, 18 1.A - DURANGO

Tel.:946 818 636 - Faxe: 946 203 637 - info@gualbiasesores.com



Atxilotu bat Abadiñon bikotekideari eraso egiteagaitik

ABADIÑO • A.M.

Joan zen barikuan, Ertzaintzak gizonezko bat atxilotu zuen Abadiñoko Muntzaratz auzoan, indarkeria matxistagaitik. Erasoa salatzen, mugimendu feministak elkarretartzera deitu du martxoaren 17rako. Abadiñoko Udalak ere babesa eskaini dio biktimari eta mobilizazioan parte hartzeko deia egin du. "Gure gaitzespena eta arbuioa adierazi gura ditugu, eta biktimaren eta haren inguruaren eskura ipini gura ditugu haren babeserako baliabideak", adierazi zuten udaletik. Elkarretartzera Txanporta plazan izango da, 18:30ean.



Traña-Matienako jaietako irudi bat.

Traña-Matienako jaiak normaltasunera bueltatuko dira

Traña-Matienako jaiak apirilaren 27tik maiatzaren 8ra bitartean izango dira; txosnagunea ere egongo da

ABADIÑO • EKAITZ HERRERA

2020an eta 2021ean jaiak bertan behera geratu eta gero, Jai Batzordekoek azaldu dute "urtebian atzean utzi behar izandako guztia berreskuratzea" dutela helburu. Jaiak antolatzen, batzar zabalak egingo dituzte, eguztenetan, 18:00etan, Errota kultur etxean. "Osasun egoerak

ohiko tankerako jaiak bermatuz gero", txosnagunea egongo dela ere aurreratu dute. Bestalde, San Trokaz jaiak ere egongo direla iragarri du Abadiñoko Udalak; maiatzaren 12an hasi eta hilaren 22an amaituko dira. Horrez gainera, jaiak iragartzen dituzten ohiko kartelen lehiaketa ere martxan ipini dute.

Eguenean hasiko dituzte Zaldibarko mendi jardunaldiak

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarren Mendi Jardunaldiak antolatu dituzte, seigarrenez; Bilbao Mendi Film Fest jaialdiko lau pelikula eskainiko dituzte bertan. Martxoaren 17an hasiko da zikloa, *Mendiak 1976* filmearen emanaldiagaz; jaialdiaren 2021eko edizioan hainbat sari

irabazi zuen; besteak beste, filmik onenari emandakoa eta publikoak emandakoa. Martxoaren 24an beste hiru film labur eskainiko dituzte: *Amagana*, *Fire in the fingers* eta *The Traverse*; film hauek ere saritu zituzten. Laurak liburutegi zaharrean eskainiko dituzte eta sarrera doakoa izango da.

Iurretak 21.000 euro ipini ditu diru laguntzetarako

Zabalik dago diru laguntzak eskatzeko epea, musika eta euskara ikastaroetarako eta udal azpiegiturretako kirolletarako

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak diru laguntzak bideratuko ditu udal kirol instalazioetan kirola egiteko eta musika eta euskara ikastaroetarako. Herriarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ) egin daiteke eskaria, hilaren 24ra arte, edo kultur-etxea@iurreta.eus posta elektronikora idatzita. Udalak 21.000 euro gorde ditu.

Kirola egiteko edo musika ikasteko beste herri batzuetako azpie-

giturak erabiltzean, bertan erroldatuta ez egoteagaitik ordainduriko aldeari aurre egiteko dira laguntzok. Euskara ikasteko diru-laguntzekin matrikularen erdia ordaindu ahaliko dute iurretarek. Horretarako, ikastaroaren %80 egin dutela ziurtatzen duen agiria aurkeztu behar da, eta 2020-2021 ikasturtean Iurretan erroldatuta egon izanaren agiria. Informaziorako, 94 620 03 42 telefonora deitu daiteke.

BETI GERTU!

ELORRIORA

HEMENDIK

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
 Tel.: 946 816 673
 Bixente Kapanaga 19, beh. 48215, Iurreta

Trabakuko konponketa lanak apirilaren erdialdean amaitzea aurreikusten du Bizkaiko Aldundiak

Orain errepide azpiko drainatze sistemak berritzen dabilta, besteak beste; lanek milioi bat eta erdi eurotik gorako inbertsioa dute



Orain errei bat dago zabalik eta semaforo sistema baten bitartez erregulatzen da trafikoa.

MALLABIA • J.D.

Trabakua gainean BI-633 errepidea konpontzeko lanak apirilaren erdialdean amaitzea aurreikusten du Bizkaiko Aldundiak eta, ohar batean informatu duenez, 1.598.400 euro inbertitu ditu hainbat lan egiteko.

Trabakua gaineko metro batzuetan errei bakarria dago zabalik noranzko bietarako, eta semaforo baten bitartez kontrolatzen da trafikoa, txandaka. Iazko abendutik izaten ari da horrela. Orduan, hilaeren hasieran, lur-jausi bi gertatu ziren han inguruan: bata bidearen ondoko mendi-hegalean, errepide gaina lurrez eta lokatzez bete zuena; bestea errepidearen azpialdean, asfalto zati bat hondoratzea eta zartatzea eragin zuena. Kalte horiek konpontzeko, hainbat berritze lan

egin dute. Mendi-hegala sendotzeko, bihurtura hirukoitzeko sarea ipini dute, hesi estatiko eta dinamikoekin batera. Lan hauek hurrengo egunetan amaituko dituzte.

Mendi-hegala sendotzeko, bihurtura hirukoitzeko sarea ipini dute bide ondoan, hesiekin batera

Errepideari dagokionez, bidearen azpialdeko drainatze sistema berria egiten dabilta egunotan. Ondoren, piloteekin eutsiko diote egiturari. Azpiko alde sendotzen dutenean, zartatutako errepide zati konpontzeari ekingo diote. Lan hau izango da hasiko duten azkena.

Izurtzan martxan da bizikletak garbitu eta konpontzeko gune berria

IZURTZA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Bizkaiko Foru Aldundiak Izurtzako aparkalekuaren ondoan bizikletak konpondu eta garbitzeko ipini zuen gunea martxan da dagoeneko. Otsail hasieran zabaldu zuten gunea, baina ur-emaria eten egin zuten eta urik barik egon da hainbat egunetan.

Konponketak eta egin beharrekoak eginda, gune berri hau martxan dagoela jakinarazi du Izurtzako Udalak.

Bizkaiko Foru Aldundiak ipinitako gunean, bihurturak eta bizikletak konpontzeko behar diren bestelako hainbat gailu daude. Horien bitartez, konponketa txikiak egiteko aukera eman gura zaie bizikletan dabiltzanei.

Aurrekontu parte hartzaileen azken bozketa Mañarian

Jasoriko ekarpenak hiru multzotan banatu dituzte eta euren artean aukeratu daiteke astelehenetik aurrera

MAÑARIA • J.D.

Mañariko Udala herritarrekin batera erabakitzen dabil aurrekontuetako 14.000 euro zertan gastatu. Lehenengo fase batean, herritarren partetik jasoriko ekarpenak aztertu eta lau multzotan sailkatu dituzte. Euren artean aukeratzeko bozketa martxoaren 14tik 21era izango da. Modu bi daude bozkatzeko: etxeetan banaturiko eskurriak bete eta autobus geltokiko

eta plazako buzoira eramanda, edo Internet bidez, whatsappko dokumentuari erantzunda.

Honako hauek dira bozkatu daitezkeen lau multzoak: herriko ondarea zaintzea eta bere balioa nabarmentzea, eskaintza kulturala areagotzea, garraioa (auzotaxia...) eta segurtasunari loturiko ekintzak egitea; esaterako, puntu beltzak identifikatzea eta eurak kentzea.

Otxandion diru laguntza jaso dute anfibioentzako guneak sortzeko

13.581 eurogaz anfibioentzako urmaelak egingo dituzte

OTXANDIO • J.D.

Otxandioko Udalak 13.581 euroko diru laguntza lortu du desagertzeko bidean dauden anfibioen ugalketarako guneak sortzeko. Azken urteotan Presa Zelai eta Iñola inguruan anfibioentzako zenbait putzu sortu ondoren, diru laguntza bat lortu dute hirugarren fase bat aurrera eramateko. Ekintza hauekin, Otxandion bizi diren 10 anfibio motaren habitata hobetu gura dute: besteak beste, arrabioarena, uhandre palmatuarena eta gailurretako uhandrearena.





Gure ikasleen ahotan

“Gehien gustatzen zaidana irakasleen hurbiltasuna eta tratu pertsonala da”



MARKEL GARROBO
(Durango, 20 urte)
Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoan
Ingeniaritza Mekanikoa graduko 3. maila ikasten ari da.

Definitu apur bat zeure burua
DBHra arte Durangoko Kurutziaga Ikastolan ikasi nuen eta Batxilergoa Durangoko Ibaizabal Ikastolan. Aisialdian, mendira joatea, eskalatzea eta gitarra jotzea gustatzen zait.

Zergatik aukeratu zenuen Mekanikako Ingeniaritza gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatea?
Betidanik gustatu izan zaizkit zientzia eta teknologiarekin zerikusia duten arloak eta baita munduaren funtzionamendua oinarritzeko eskala batean zein den ulertzea ere. Hori dela eta, ingeniaritza mekanikoa aukeratu nuen, izan ere, ingeniaritzen artean arlo gehien jorratzen dituen da. Unibertsitatea aukeratzeko orduan, Mondragonen proposamena erakargarria zela iruditu zitzaidan ikasgaiak praktikagoak direlako eta lan mundura bideratuta daudelako.

Nola definituko zenuke jasotzen duzun ikasteko metodologia?
Seihileko bakoitzaren amaieran taldekako proiektua garatzen dugu, zeinetan ikasitakoa egoera erreal batean aplikatu eta ezagutza berriak gure artean ikasi behar izaten ditugun. Aldi berean, talde-lanean trebatzen gara. Horrekin batera, ebaluazioa jarraitua izateak eta ikasgaietako edukiak kontrol puntuetan banatuta egoteak eramangarriago bihurtzen du kurtsoa ikaslearentzat. Gradu hau interesgarri bezain zorrotza da, eta aurrera ateratzeko gakoak, lanean konstantea eta zorrotza izatea eta motibazioa dira. Horrez gain, Unibertsitateak eskaintzen duen lan egiteko eta ikasteko aukera, formazio duala, aukera oso ona iruditzen zait ikasketak egiten ari diren artean lan esperientzia lortu nahi dutenentzat.

Unibertsitateatik zer da gehien gustatzen zaidana? Eta zerbait hobetzeko?
Gehien gustatzen zaidana irakasleen hurbiltasuna da; izan ere, Mondragon Unibertsitatean irakasleek ikasleekin jarraipen sakon eta hurbila egiten dute, tratu pertsonala emanez. Aldatuko nukeen gauza bat gradu desberdinetan amankomunak diren irakasgaiak diziplina anitzeko taldeetan ematea izango litzateke; hau da, talde berean gradu desberdinetako ikasleak nahastuz, horrela beste graduetako jendea ezagutzea errazagoa izango zen eta klaseei dinamismo gehiago emango ziela iruditzen zait.

Etorkizunari buruz, zein da zure asmoa?
Lehenengo gradua amaitzea da, eta nazioartekotze programan sartzea lortu dudanez, dena ondo badoa datorren urteko lehenengo seihilekoa atzerrian burutuko dut, Estonian hain zuzen ere.



Bidea berri eta inguruko harresiak konponduko dituzte, besteak beste.

Hilerrira doan bidea konpontzea, Berrizko aurtengo proiektu nagusia

EAJk aurrekontuen alde bozkatu zuen. EH Bilduk eta Podemosek, ostera, kontra

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko Udalak 2022rako aurrekontuak onartu ditu asteon, EAJren aldeko botoekin. Udalak 6.303.000 euroko aurrekontua izango du.

Inbertsioei dagokienez, Berrizek iaz baino 183.000 euro gehiago izango ditu 2022an, hau da, %38,79ko igoera izango du. Guztira, 470.000 euro inguru. Urteko obrarik esanguratsuen hilerri-rako bidea konpontzea izango da. Lan horiek egiteko, 235.000 euro ipiniko dituzte. Orlan Isoird alkateak jakinarazi zuenez, errepideko harresiak konpondu, herriko

Berrizko Udalak 235.000 euro ipiniko ditu hilerrira doan bidea konpontzeko

ura hilerrira eta herri ortuetara bideratu eta argiztapena hobetuko dituzte, besteak beste.

Oposizioko taldeek aurrekontuen kontra bozkatu zuten. "Egia da aurrekontu hauetan gure hainbat ekarpen jaso direla, gure eskari historiko batzuk. Baina

gure eskariz sortuak izan ziren aurrekontu parte hartzaileak desagertu egin dira. Parte hartzerik bako aurrekontuak dira. Gainera, ez dakigu non geratzen diren aurreko aurrekontu parte hartzaileetan egin barik geratu diren proiektuak", adierazi zuen Josu Albizuri EH Bilduren bozeramaileak.

Podemoseko David Jimenok ere aurrekontuen kontra bozkatu zuen. "Ez da partidarik bideratzen aurrekontu parte hartzaileetara. Beraz, aurrekontuen kontra bozkatuko dugu", esan zuen Jimenok.

HAP0a berrikusteko asmoz, Herritarren Partaidetzarako Programa onartu dute Elorrión

EH Bilduk eta EAJk emandako aldeko botoekin Herritarren Partaidetzarako Programa onartu dute



Osoko bilkuran onartu zuten partaidetzarako programa.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

HAP0a berrikusteko asmoz, joan zen asteko osoko bilkuran Herritarren Partaidetzarako Programa onartu zuten Elorrión. "Beti esan dugu herritarrekin batera hobetu gura dugula Elorrio, eta funtsezkoa iruditzen zaigu HAP0aren berrikuspen batek partaidetza prozesu zabala izatea, elorriar guztiei informazioa, hausnarketa eta eztabaida zabala ahalbidetzeko. Prozesua herri galdeketa gatz amaituko da, prozesuan zehar sorturiko alternatiben artean herriak bere erabakia eman dezan", adierazi zuen Maria Herrero alkateordeak.

Partaidetza hainbat jardue-ra eta mailatan oinarrituko da. Zortzi fase izango ditu eta hiri plangintzaren garapenagaz batera uztartuko dira, harik eta Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartu arte. "Herritarren Partaidetzarako Programa onartzeak HAP0a berrikusteko lehenengo pausoa ematea ahalbidetuko digu. Asmo handiko programa da eta beharrezkoa den informazio guztia transmititzea lehenetsiko dugu", gaineratu zuen Herrerok.

Herritarren Partaidetzarako Programa EH Bilduren eta EAJren aldeko botoekin onartu dute.

Atxondoko kirol parke berriak parkour pista, kalistenia gunea, rokodromoa eta tirolina izango ditu

Parke biosasungarri berri honek kalistenia gunea, parkour pista bat, rokodromoa eta tirolina izango ditu, besteak beste. Parkeak 400.000 euroko aurrekontua du eta Atxondoko Udalak aurreikusten du udarako amaituta egongo dela



Pump Track gunearen ondoan egingo dute eremu hori.

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak parke biosasungarri berri bat eraikitzekeo proiektuaren berri eman du; parkea Barraskiko etxeen ondoan egingo dute, Pump Track eremuan eta Ziarretan. Udaletik jakinarazi dutenez, gune berri honek kalistenia parke bat, parkour pista bat, rokodromoa eta tirolina izango ditu. Horrez gainera, tenisko egungo pista ere egokituko dutela azaldu dute. Lanok 400.000 euroko aurrekontua izango dute eta horietatik 207.000 Aldundiak ordainduko ditu.

"Atxondori kirol instalazio bat eman gura diogu, adin eta talde ezberdinetara egokituko dena. Kirol instalazio berri horiek oinezkoen-

tzako bide batez lotuta egongo dira. Proiektu garrantzitsua eta berri-zailea da, iaz martxan ipini zen proiektuagaz bat egiten duena, hain zuzen ere arrakasta handia izaten ari den pump-trackagaz", azaldu du Xabier Azkarate alkateak.

Oposizioak uste du proiektua prozesu parte hartzaile baten bitartez egin beharko litzatekeela

EH Bilduren abstentzioa

Proiektua joan zen asteko osoko bilkuran onartu zuten, EAJren aldeko botoekin. EH Bildu abstenitu egin zen. "Proiektua ondo ikusten dugu, baina prozesu parte hartzaile bat egin beharko litzatekeela uste dugu. Herritarrekin, guraso taldeagaz eta kirol taldeekin kontsultatzea ezinbesteko ikusten dugu", esan zuen Ane Intxausti EH Bilduren bozeramaileak.

Bizipoza eta EHko Down Syndrome Fundazioa: berria eta guztiontzat hobe izango den mundu baten aldeko elkarlana

'Mundu berri bat guztiontzat 2' proiektuan parte hartu du Zornotzako EHko Down Syndrome Fundazioak, besteak beste

ZORNOTZA • ARITZ MALDONADO

Guztiontzat hobe izango den mundu berri baten alde lan egiteko helburuak batu ditu *Mundu berri bat guztiontzat* egitasmoak, bigarren urtez. Auzolan horretan, Bizipoza proiektua osatzen duten 36 elkar-teak batu dira; tartean, Zornotzan egoitza duen EHko Down Syndrome Fundazioa. "Guztiz oso garrantzitsua da horrelako proiektu batean parte hartzea. Horrelakoei eskerrak, bestela helduko ez ginatekeen lekuetara heltzen gara", azaldu du Amaia Peula elkarteko langileak. "Bakoitza bere kolektibo edo elkartetik batzen den arren, helburu berdinen alde lan egitea oso aberasgarria da, asko ikasten dugu elkarrengandik", gaineratu du Peulak.

Bizipozaren proiektuan zuzenean parte hartzen ez badu ere, Uriarte Ortiz familia zornotzarra EHko Down Syndrome Fundazioko kidea da eta eurek ere esker oneko berbak baino ez dituzte horrelako ekimen eta elkarrengandik. "Nork

ulertuko zaitu ondoen? Zureen antzeko bizipenak dituenak, jakina. Hain zuzen ere, lagun asko egin dugu hemen, guraso asko ezagutu dugu, eta antzerako bizipenak ditugunez elkar ulertzen dugun", dio Maider Ortizek, Iraia Uriarteren amak. Sergio Uriarte aitak eta Katalin Uriarte Iraiaren ahizpak osatzen dute familia, "taldea" euren dioten lez. Iraiak adimen urritasuna du eta urteak daramatzate elkarrengandik laguntza jasotzen. "Elkartean eta eskolan asko lagundu digute. Iraiak lagun asko egin du eta gauza asko ikasi du, eta baita guk ere. Hamabi urtean ez da geldirik egon, egunero ikasi du zoezer", azaldu du Sergiok, aitak. Horrez gainera, Katalinen eta Iraiaren arteko hartu-eman nabarmendu gura izan dute. "Iraiaren heroia da, eta familia honetako zutabeetarik bat", gaineratu du.

Letragileak eta musikagileak

Urriaren 9tik, bigarren urtez, Bizipozak CDa, DVDa eta liburuxka



Sergio Uriarte, Katalin Uriarte, Iraia Uriarte eta Maider Ortiz.

Uriarte Ortiz familia zornotzarrek elkarrekin eta eskolak egindako lana azpimarratu du

kaleratu ditu; Xabier Zabalak konposatu ditu kanta guztiak, baina hamabi elkarrekin eta hainbat euskal sortzailearen elkarlana du atzean ekoizpenak. Besteak beste, Igor Elortza bertsolari durangarrak parte hartu du sorkuntzan. Liburuxkako ilustrazioak Eñaut

Aiartzaguena iurretarrak egin ditu. EHko Down Syndrome Fundazioak *Hogeitabira* kantan parte hartu du. Guztira, diskoak hamabi abesti ditu, elkarrekin bakoitzeko bat. *Bizipoza auzolan* kanta da diskoak azkena; abestiak elkarrekin guztien ahalegina laburbiltzen du.

Garai garagardo etxeak zerbeza-dastatzeei ekingo die martxoaren 25ean

6 dastatze-saio izango dira. Saio bakoitzean 5 pintxo eta 5 garagardo dastatuko dituzte

GARAI • EKAITZ HERRERA

Garai garagardo etxeak zerbeza-dastatzeak egingo ditu bere lantegian. 6 dastatze izango dira eta martxotik ekainera bitartean egingo dituzte. Honako hauek dira datak: martxoaren 25a, apirilaren 9a eta 29a, maiatzaren 14a eta 27a eta ekainaren 10a. Saio bakoitzean 5 garagardo eta 5 pintxo dastatuko dituzte, 30 euro ordainduta. 18:00etan ipini dute ordua. Taxi zerbitzua ere egingo da.



Dastatze bakoitzak 30 euro balio du.

Euskararen presentzia neurtuko dute Zornotzako komertzioetan

Siadeco ikerketa etxeak herriko taberna eta denda guztiak bisitatuko ditu. Ikerketa presentziala izango da

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Zornotzako establezimenduetan ikerketa bati ekin diote euskararen egoera zein den eta euskararen presentzia zer-nolakoa den aztertzeko. Udalak agindu du ikerketa, merkataritza eta ostalaritza biziberritzeko planaren barruan. Siadeco ikerketa etxea kontratatu dute horretarako, eta herriko denda eta taberna guztiak modu pre-

sentzian ikertzea dute helburu. Horrenbestez, ikerketa egiteaz arduratuko direnek bisita presentzialak egingo dituzte Zornotzako 92 ostalaritza establezimenduetan eta 212 dendetan. Martxoaren 14tik aurrera ekingo diote lanari. Behin ikerketa eginda, udalak informazioa eskuratuko du, gero euskararen erabilera indartzeko merkataritzan.

bertako
igogailuak | ascensores

22. korrika
HITZKETA
Amurriotik Donostia
2022ko martxoaren 3tik apirilaren 10era

**EUSKARA,
GURE HELBURU KOMUNA**

ARABA
945 712 822

BIZKAIA
946 523 935

GIPUZKOA
943 903 450

NAFARROA
848 870 917

DEITU EDO BISITATU
www.bertako.eus

"Inoiz baino familia gehiago" behar dute Oporrak Bakean egitasmoan

Ume sahararrak Euskal Herriko etxeetan hartzeko kanpaina martxan da berriro

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

'Oporrak Bakean' egitasmoaren bidez, Durangaldeko familiek zabalik dute aukera Tindufeko (Aljeria) errefuxiatuen kanpalekuko ume sahararrak udan harreraren hartzeko.

Errefuxiatuen kanpalekuetako bizimodua gogorra da, eta azkenaldiko "gerra testuinguruak" egoera "are larriagoa" bihurtu du. Horixe adierazi zuen Euskal Fondoan Saharako Koordinaziorako arduraduna den Itsaso Anduezak ekimenaren aurkezpenean: "Kanpamentuetan beste 4.000 pertsona hartu behar



Durangoko Udaleko, elkarteetako eta erakundeetako ordezkariak aurkezpenean.

izatea ekarri du egoera horrek". Hori gutxi balitz, pandemiaren eragina ere hor dago. "Kanpamentuetan laguntza humanitariotik bizi dira eta denbora honetan guztian ez dute laguntzarik jaso. Urrian zabaldu zituzten berriro Aljeriako mugak, eta egoera ez zela batere ona ikusi genuen", gaineratu zuen Anduezak. Oporrak Bakean egitasmoaren garrantzia azpimarratu dute. "Inoiz baino familia gehiago behar dugu", adierazi zuen Anduezak. Dei zabala egin die herritarrei 8tik 12 urtera arteko umeak euren etxeetan hartzeko.

Interesa dutenak *oporrakbakean@gmail.com* helbide elektronikoaren edo *www.oporrakbakean.eus* webgunearen bitartez ipini daitezke hartu-emanetan egitasmoko arduradunekin.

Politikan

Mireia Elkororibe
Zenikaonandia
EAJ



Gure irrintziak darrai

Aurten ere kalera irten gara eta emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eragin-korra aldarrikatu dugu Emakumeen Nazioarteko Egunean. Berdintasun horretan oraindik asko dago egiteko, baina gure birramamek, amamek eta amek ireki zuten bidea, eta gehienek isilean borrokatu ziren gizartean lekua egiteko.

Orain guri dagokigu bere ondareekin jarraitzea eta gizarteko esparru guztietan lan egiten jarraitzea, eta, gure kasuan, esparru politikoan. Horretan, Durangoko eta Durangaldeko EAJ aitzindari izan da, demokrazia hasi zenetik beti izan baititugu emakumeak erantzukizuneko karguetan, bai alkateak, bai Mankomunitateko presidentek, eta harro gaude horretaz.

Berdintasunaren aldeko borroka luze honek beste mugarri bat bizi izan du aste honetan bertan

Berdintasunaren aldeko borroka luze honek, gainera, beste mugarri bat bizi izan du aste honetan bertan, Eusko Legebiltzarrak Berdintasunerako Legea erreformatu baitu. 2005ean, Euskadi erkidego aitzindari bihurtu zen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea onartzean, eta, orain, 17 urte geroago, berriz ere erreferentzia izan da, emakumeak babesteko esparru sendoagoa duen erreforma integral bat bultzatzean. Erreforma hori funtsezkoa izango da indarkeria genero-desberdintasunaren adierazpen nagusi gisa kokatzeko.

Hori dela eta, EAJren aurtengo leloa *Gure irrintziak darrai* izan da, emakumeok lanean jarraituko dugulako gizarteko esparru guztietan.

Durangaldea asteen

Berton Bertokoa dinamikak gala bat egingo du apirilaren 1ean, Elorrion

Durangaldea | Tokiko elikaduraren aldeko dinamikak aurreratu du jaialdi berezi bat egingo duela apirilaren 1ean, Elorrioko Arriola aretoan. Ekitaldia 19:00etan hasiko da. Egitasmoaren bultzatzaileek aurreratu dute zuzeneko musika, photocalla, sari banaketa eta dantzak egongo direla. Ekitaldirako sarrerak dinamikak esku hartzen duen eskoletan daude salgai.

Euskara plana osatu eta datozen dinamikak antolatzeko batzarra Iurretan

Iurreta | Iurretako Euskararen Aholku Batzordeak batzar zabalera deitu du 2022an euskara sustatzeko ekimenak antolatzeko. Korrika, Euskaraldia eta beste hainbat gai landuko dituzte bertan, eta parte hartzeko gonbita egin diete herritarrei. Batzarra martxoaren 15ean izango da, 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

'Lanigredo' argazki erakusketa hile amaierara arte egongo da ikusgai Elorrion

Elorrio | Larraitz Loizate Etxarte argazkilariak, Noctis Photo-bookesegaz lankidetzan, *Lanigredo* lana aurkeztu zuen joan zen barikuan, Iturri Kultur Etxean. Argazkiak zuri-beltzekoak dira eta erakusketa martxoaren 31ra bitartean egongo da ikusgai, Iturri Kultur Etxean, 9:30etik 20:00etara bitartean.

Gutuna

HERRIA ITOTZEN ARIZARETE

Ez gara ez dragoien ez faraoien garaian bizi, baina basoak eta herriak jaten diharduen munstroa dugu auzoan. Ez da ipuinetako kontua hau. Durangaldean bizi dugun AHTaren txikizioak harrokeriaren munstroak egindakoak dira. Aspaldi ari da Euskal Herriko basoak, zelaia, auzoak jaten, txikitzen, irensten. Gure basoen bihotzetan, baserrietako bizimoduan hondeamakinak edonon: iturburuak agortu, zelaia idortu, zuhaitzak moztu, errekek uhertu...

Duela 16 urte agintari politiko jeltzale, sozialista eta popularren arteko hirukoek eskuak eta diruak elkarri igurtzita euskal herritarren ongizaterako -baina poltsiko batzuen intereseko- ezinbesteko proiektu estrategikoa zela saldu zutenean lo egin bazuten bakea izango genuke. Baina hemen, gure auzo, baso, mendi eta herrietan ez dago bakerik, eraso baizik.

Urteotan, Abiadura Handiko Trenaren munstroak euroak jan eta jan besterik ez du egin, aurrekontu publikoen diru-poltsak etengabe hipotekatuz, azpikontraten ongizatea, hori bai, txukun bermatuz.

Hondatu eta hipotekatu dituzue auzoak, basoak, naturaguneak. Belaunaldi berriei natura ondarearen orbana utzi eta energia garbiaz hitz egitea zinismo lotsabakoa da.

Koste ekonomiko ikaragarriak herriaren lepo laga, eta, Europak berretsi duenez, inpaktu ekologiko kontaezinak guztiontzat.

Aidazu, Igueria... Auzoak bizirik nahi ditugu!
Kanpazar, Udaltz, Memaia... basoak bizirik nahi ditugu!
Herria itotzen ari zarete!

Maialen Arregi eta Txus Arrieta (Elorrioko EH Bilduren izenean).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:
Bixente Kapanaga 9, -IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidaltako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ



urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

BURUARI KLIK!



LOTU ITZAZU

Bete falta diren letrak eta lotu berbak gorputzeko zati bakoitzagaz.



B U R U A



 E G A



B L R R A



 Z P A N K



S U U R R



B S O



A H



H A K



 S K U



O N



SUDOKUA

O	I		A
N		O	
	N	A	
A			N

Kokatu lauki
bakoitzean dagokion letra.

O I N A

ASMAKIZUNA

Leiho pareta aurpegi
erdian.
Egunez zabalik
gauetz itxita.



Zer da?

Beheko lauki honetan egin asmaki-
zuneko erantzunaren marrazkia.



BIKOTEAK SORTU

Lotu animalia bakoitza jaten duenagaz.





'Winona & Grace'

ANTZERKIA BERRIZ :: Martxoak 12

Khea Ziater konpainiaren azken obra aurkeztuko dute Berrizen

Aktore gazte bi zuzendari eza-gun baten etxean esnatuko dira, gau festa zoro baten ondoren; burua nahastuta eta apur bat mozkor oraindino, bakarrik eta apartamentuan giltzapetuta daudela konturatuko dira. Hortaz, patua onartu eta denbora tarte hori elkarregaz bizitzea erabakiko dute, elkar deskubri-

tzeko eta ikusleek ere nortzuk diren ezagutzeko balioko duten ordu batzuk: gizarte eta lanpostu kapitalista eta konpetitibo honetan euren tokia bilatzeko borrokan dabilzan emakume gazte bi. Khea Ziater konpainiak martxoan estreinatu duen obra Berrizko Kultur Etxean ikusgai, bihar, 19:00etan.

Martxoaren 11n

DURANGO kontzertua
Shibari + Haatik + Nize,
21:00etan, Sorginola
gaztetxean.

DURANGO aurkezpena
'Contra la banalización del feminismo' liburuaren aurkezpena (Maria Gorosarri), 18:00etan, Andragunean. Aldez aurretik izena eman behar da 944 657 092 telefono zenbakira deituta.

ELORRIO antzerkia
'Los viajes de Bowa' (La Gata Japonesa konpainia), 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA antzerkia
'Piztu! emakumeon energia' (Eidabe kultur ekimena), 17:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

ZORNOTZA antzerkia
'Lehendakari Gaia' (Txalo Produkzioak), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 12an

ELORRIO musika
Funk Gaua: Kalekoak + Amooma + Selektia 9mm, 23:00etan, Elorrioko Gaztetxean.

IURRETA antzerkia
'¡Ese No!' (Banarte konpainia), 19:00etan, Ibarretxe kultur etxean.

Martxoaren 13an

DURANGO antzerkia
'Lubaki lainotsua' (Atx Teatro), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

Martxoaren 14an

ABADIÑO irakurzaletasuna
Irakurketa Kluba, 19:00etan, Errota kultur etxean. Gaztelaniaz. Peru Magdalenak dinamizatuta.

Martxoaren 16an

DURANGO tertulia
'Japoniar gastronomia Durangon' tertulia, 18:30etik 20:00etara, Saltsan-en. Iñaki Uriberak gidatuta. Doan da eta plazak mugatuak dira. Izena emateko, 639 400 786 telefono zenbakira deitu daiteke.

Martxoaren 17an

BERRIZ antzerkia
'Atzerrian lurra garratz' (Huts Teatroa + Artedrama), 12:00etan, Kultur Etxean.

ZALDIBAR menditour 2022
Mendi Film Festival: 'Mendiak 1976' dokumentala, 18:30ean, liburutegi zaharrean.

Martxoaren 18an

BERRIZ kontzertua
Mausoleo + Aihotz,
22:00etan, Hlltegitxe gaztetxean.

ELORRIO musika
Trigger, 20:00etan, Arriola antzokian.

IURRETA poesia eta musika
'Oraindik eta oraingoz' (Jon Basaguren eta Iñigo Astiz), 19:00etan, herri bibliotekan.

Martxoaren 19an

BERRIZ kontzertua
Niña Coyote eta Chico Tornado, 19:00etan, Kultur Etxean.

ELORRIO mendi ibilaldia
Mendi Lagun mendi ibilaldia: Elorrioko Ermitak (2. zatia), 09:00etan, Elorrioko plazatik irtenda. Berbalagunek eta Erdella mendizale taldeak antolaturiko ibilaldia, lau ordu ingurukoa. Doan da eta honako telefono zenbakira deitu daiteke izena emateko: 639 400 786.

ZORNOTZA ipuinak
'Arrosa eta leuna', Maite Franko ipuin kontalariaren eskutik, 12:00etan, udal liburutegian.

ZORNOTZA magia
'Erdi Aroko ipuin magikoa', (Oliver Magoa, 17:30ean, Zornotza Aretoan.

Martxoaren 20an

DURANGO antzerkia
'Narziso', (Borobil konpainia),
18:00etan, San Agustin kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
'Zintzilik', (Jazza familian),
17:00etan, Arriola Antzokian.

Martxoaren 31ra artean

DURANGO erakusketa
'Tupust', Arteka liburu-dendan.

ELORRIO erakusketa
'Lanigredo' (Larraitx Loizate Etxarteren argazkiak), Iturri kultur etxean. Noctis Photobookesegaz lankidetzan sorturiko lana.

ZORNOTZA erakusketa
'No soy flor de tu florero' (Alejandra Buenoren argazki eta bideoak), Zelaieta Zentroan.

Apirilaren 23ra artean

DURANGO erakusketa
'Goya-Haes-Fortuny. Zuri-beltzeko altxorak', grabatu erakusketa, Arte eta Historia Museoa.

Zinema

:: **Abadiño**
ERROTA KULTUR ETXEA

• **Libertad**
zapatua 12: 19:00

• **Kikoriki. Déjà vu**
domeka 13: 17:00

:: **Berriz**
KULTUR ETXEA

• **Un pequeño mundo**
barikua 11: 19:30
domeka 13: 19:00

:: **Durango**
ZUGAZA

• **Cyrano**
barikua 11: 19:30/22:00
zapatua 12: 17:00/19:30/22:00
domeka 13: 17:00/19:30
astelehena 14: 18:00/20:15
martitzena 15: 18:00/20:15
eguztana 16: 19:00

• **Malnazidos**
barikua 11: 19:30/22:00
zapatua 12: 17:00/19:30/22:00
domeka 13: 17:00/19:30
astelehena 14: 18:00/20:15
martitzena 15: 18:00/20:15
eguztana 16: 19:00

Un héroe
barikua 11: 19:30/22:00
zapatua 12: 19:30/22:00
domeka 13: 19:00
astelehena 14: 18:00/20:15
martitzena 15: 18:00/20:15

• **Ainbo: Amazoniako gerraria**
zapatua 12: 17:00
domeka 13: 17:00

• **Azarnak-Huellas**
eguztana 16: 19:00

:: **Elorrio**
ARRIOLA

• **Licorice pizza**
zapatua 12: 20:00
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:00

• **Tximinoen izarra**
domeka 13: 17:00

:: **Zornotza**
ARETOA

• **'La hija oscura'**
zapatua 12: 20:00
domeka 13: 20:00
astelehena 14: 20:15

• **Kikoriki. Déjà vu**
zapatua 12: 17:00
domeka 13: 17:00

• **La vida era eso**
martitzena 15: 20:15

“Vulkegaz lehen ere asko jotzen genuen, baina oraingo hau sinestezina da. Bat-batean etorri zait aldaketa”

Musikari lez, sasoi ona izaten ari da Jangitz Larrañaga berriztarrarentzat; Vulk taldeagaz, dozenaka kontzertuko biran murgildurik dago, lan berria aurkezten



Jangitz Larrañaga Gonzalez

Musikaria
BERRIZ | 1997

Jangitz Larrañaga Vulkeko bateria-jotzailea da.

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Jangitz Larrañaga berriztarrak bira betean dago Vulk taldeagaz; taldeko bateria-jotzailea da. 2018an batu zen taldera, eta 'Vulk ez da' diskoan sortze prozesutik parte hartu du. Urtarrilean kaleratu zuten diskoa eta taldekideak pozik daude abesti berriak edukitzen ari diren harreragaz, baita kontzertuetan zaleak erakusten dabilzan jarreragaz ere. "Sarreraren salmentak oso ondo doaz. Uste dugu lan handia egin dugula, eta jendea oso gauza politik esaten dabil diskoari buruz", adierazi du musikari berriztarrak. Bartzelonan, Madrilen eta Azpeitian egon dira, besteak beste. Asteburu honetan, Ondarroako Portuko Ranpin joko dute. Larrañagagaz batera, Julen Alberdik, Andoni de la Cruzek eta Alberto Eguiluzek osatzen dute Vulk.

Zelan doa bira hasiera?

Bagenekien bazetorrela, baina ekin arte esango nuke ez ginela kontziente zelakoa izango zen bira hau. Pentsa, Bartzelonan eta Madrilen kontzertu bana eskainita ekin diogu birari! Aurretik ere jo izan dugu hiriburu horietan, eta ondo, baina oraingoak itzelak izan dira. Hiruzpalau bider jo dugu Madrilen, eta hau onena izan da. Lehenengoz, euskarazko abestiekin joan gara hara, eta jendeak abestu egiten zituen! Orokorrean, pozik gaude sarreraren salmentagaz. Uste dugu lan handia egin dugula eta jendea oso gauza politik esaten dabil diskoaz ere.

Komunikabideetan asko azpimarratzen da gure zuzenekoena. Niri beldur apur bat ematen dit, azken finean, beste talde askok egiten dutena egiten dugu eta.

Ondo jotzen dugula iruditzen zait, baina ez dut uste Mockersen mailan gaudenik, adibidez; zuzenekoetan dena bere lekuan dago eurekin, beste maila batean daude. Gogoia ipintzen diogu, baina beste talde askoren moduan. Geroago eta hobeto jotzen ahalegintzen gara, eta horrelako berbek hobetzera animatzen gaituzte. Eskertzekoak dira.

Euskara hutsean egindako lehenengo lana duzue hau. Sorkuntza prozesutik parte hartu duzun lehenengo lana da. Horregaitik da?

Aldaketak Zaldibarregaz du zerikusirik handiena. Ni hasi aurretik ere, Andonik letra pare bat sartu zuen euskaraz. Disko berrirako abestiak konposatzen hasi ginean, euskaraz irteten hasi ziren, modu natural batean. Nik Sorgin tabernan lan egiten nuen, baita

orain ere, eta Andoni ere hona etortzen hasi zen, askotan. Galdakoztarra da bera, euskalduna txikitatik, baina inguru erdaldu-na eduki du. Sorginen lanean hasi zen bera ere, eta euskaraz askoz gehiago egiten hasi zen. Abestiak modu naturalean irten dira euskaraz, ez hori bilatzen genuelako. Zaldibarren, Andonik ez du erraztasuna lortu bakarrik, euskaraz aritzeko joera ere bai. Zelako altxorra den konturatu da, eta hizkuntza gutxitu bat defendatzeak daukan militantzia horretan ere murgiltzen hasi zen.

Abestiak modu naturalean irten dira euskaraz, ez hori bilatzen genuelako

Mockersek ere antzerako bidea egin du, euskaraz abestera igarota.

Kanpora begiratu beharrean, bertakoari eman diogu garrantzia, eta nik uste Mockersi ere antzerako zerbait gertatu zitzaiola, oso natural; Ritxiren [Blanco, Mockers-eko gitarrista] oihu batzuetan Duten eragina igartzen dela esango nuke. Tabernan lan eginda, beharbada etxean entzuten ez dituzun talde batzuk entzuten dituzu, arreta gehiagoz. Bat-batean, beti hor egon diren talde batzuk talde kutun bihurtu dira, eta, konposatzerakoan, kontuan hartzen dituzu.

Musikalki ere izan duzu eragina?

Hori pentsatzea gustatuko litzaidake, baina ez dagokit niri hori esatea. Chaviren [Javier Marco, aurreko bateria-jotzailea] jotzeko modua barneratzea izan zen egin nuen lehenengo gauza. Asko gustatzen zait zelan jotzen duen. Eta horrek lagundu egin dit Vulken soinu hori mantentzen. Baina, gero, neure ekarpena egin dudala ere esango nuke, pisua eman diodala, jotzerakoan gogor jotzen dudalako. Nik behintzat disko hau pintsuago igartzen dut, baina izan daiteke, baita ere, sortzerakoan horixe zelako gorputzak eskatzen ziguena.

Diskoaren azalerako tailatua zure aitak egin du, Jose Felix Larrañagak. Vulk zalea da?

Diskoa grabatu eta gero, azalaz eta irudiaz berbetan egon ginen. Esan dizudan moduan, diskoa indartsua irten da, oso gauza fisikoa,

eta pieza trinko bat imajinatzen genuen azalerako. Diskoa zuzenean jotzearen produktua da, asko entseatzearen fruitua. Oso fisikoa.

Aita musikaria zen, berak ere bateria jotzen zuen, Durangaldean nahiko famatua izan zen Txortan taldean. Gurasoek asko lagundu didate beti musika kontuetan. Komentatu nionean, oso ideia ona irudituz zitaion. Oso pozik dago, orain publizitatea egiten diogulako elkarrizketetan (barrez).

Zuzeneko asko dituzue aurretik Vulkegaz. Horrelakoetan disfrutatzen duzue gehien?

Gauza bi desberdinduko nituzke hor. Komunikabideek gure zuzeneko alde hori nabarmentzen dute, baina horrela ikusten dugu geuk ere. Zuzeneko taldeetat dugu geure burua. Badaude proiektu musikalak, diskoak grabatzeko helburua dutenak, edo ekoizpenera dedikatzen direnak. Beste talde askoren moduan, gure helburua zuzeneko jotzea da. Eta diskoa zuzeneko horien erregistroa da. Orain, data hauek guztiak ikusita, zer gehiago eskatu dezakegu? Asko jotzen gabiltza eta data asko ditugu aurretik. Guretzat itzela da, errepidean eta soinu probetan ere ideia berriak sortzen direlako. Baita noizbait nekatzea ere, baina oraingo asko disfrutatzen gabiltza honegatz.

Baliteke noizbait nekatzea baina oraingoz asko disfrutatzen gabiltza

Cuero taldean ere jotzen duzu eta abenduan Europatik ibili zarete. Normalitatea bueltatu dela esango zenuke?

Zelako normalitatea da hori, baina? Hau ez zen nire lehenengo normalitatea. Vulkegaz lehen ere asko jotzen nuen, baina oraingo hau sinestezina da. Bat-batean etorri zait aldaketa. Neure bizitza honen zerbitzura jartzen nabil eta horixe da gura dudana. Abenduan, Cuero taldeagaz Europako hainbat herrialdetan jo genuen, Revert bermeotarrekin batera. Cuero eta Vulk, bietan jotzea oso gustuko dut, ez dituztelako estilo definituak, eta, horrela, jotzeko modu desberdinak proiektatzen ditut bertan. Gauza berriak probatzeko aukera eskaintzen didate, eta, musikari lez, bateria-jotzaile lez, oso interesgarria iruditzen zait hori.

Gai librean

Arrimua

Alaine Agirrek *Karena* liburuan honako hau idatzi zuen: “Minak deformatu egiten du”; eta beharbada, mina da Aneri, bizi izandakoa gogoratzeko duenetan, akorduak lanbrotzen dizkiona. Aldiz, “beldurrarekin ere, gauzak egin daitezke” idatzi zuen Arantxa Urretabizkaik *Bidean Ikasia* saiakeran (Euskadi Saiakera Saria, 2017); eta horregatik erabaki dut nik Aneren istorioa kontatzea, beldurrak beldur, lipar batez bada ere, lerro hauek idazteko, neure buruari tregua ematen diodan artean.

9 urte zituela bortxatu egin zuten Ane. Komisarian haren gurasoei esan zieten hobe zela salaketarekin aurrera ez jarraitzea, ez zeukala zentzurik, erasotzailearen perfila zein zen jakinda, ezer gutxi egin zezaketela alaba babesteko. Aurretik zeukan prozesua “traumatikoegia” zela 9 urteko neskato batentzat.

Karmele Jaiok *Aitaren Etxea* eleberrian (Euskadi Literatura Saria, 2020) zera dio: “... garai batetik aurrera, isiltasuna aukeratu zuen”. Zalantza egin dut zenbatetan den emakumeontzat* aukera bat isiltasuna. Noiz isildu garen erabaki propioz,



Miren Erdoiza
Mujika
Irakaslea

9 urte zituela bortxatu egin zuten Ane. Komisarian haren gurasoei esan zieten hobe zela salaketarekin ez jarraitzea

Beharrezkoa da plazak, afixak, pantailak eta kalea emakume* feministaz betetzea

eta zenbatetan, ordea, hartara behartu gaituztelako. Anek jakin badaki, nahiz eta zenbait urte behar izan dituen ondorio honetara heltzeko, mututzeak, berari baino, erasotzaileari, poliziarri eta sistema osoari ere egin diela mesede. Miren Agur Meaberi aditu nion joan den astean berarentzat ezinbestekoa izan dela arrimua, emakume* bezala, zeharo egonkortuta zegoen sistema heteropatriarkalean bizirauteko. Emakumezkoak* ziren idazle batzuk elkartu eta antolatu zirela

beren ahotsak entzun zitezten. Uste dut bete-betean asmatu zuela berbarekin. Arrimua da bide bakarra.

Argi daukat Anek ez zuela isiltasuna aukeratu. Hamar urte igaro dira harezkerok, eta begitantzen zait gauzak ez direla askorik aldatu. Anek eta biok badakigu sistemak isilarazten gaituela, eta (berriz ere) biluztu, baina badakigu indartsu gaudela ere; antolatu garena eta elkar elikatu. Arnasa ematen dit aipatutako emakumeak* ikusteak, irakurtzeak edota entzuteak. Uxue Alberdik hau esan zuen elkarrizketa batean: “Badirudi autoritatea ematen zaigula soilik feminismoari buruz idazten badugu”. Nik ere badut irudipen hori, nolabait, badagoela emakume* sortzaileen uzta bat, non gai zehatz batzuei buruz jardunez gero ematen zaien lekua. Hala ere, esango nuke eskertzekoa dela, eta are gehiago, beharrezkoa dela plazak, argazkiak, oholtzak, afixak, pantailak, orrialdeak eta kaleak emakume* feministaz betetzea.

Isiltzea hautu bat izan dadila, eta ez dezala beste inork estali Ane eta munduko neskato guztien ahotsa.



ERRESERBA EGIN
ERRIOXAN

Informazio gehiago



 La Rioja
lariojaturismo.com

Zaleek hauspotuta, Zornotza STk Zilarrezko Ligako lehenengo kopa altxatu dezake

Teknei Zornotza eta Ibiza taldeek Larrea kiroldegian jokatu dute finala, zapatu arratsaldean



Sarrerak bizi-bizi saltzen dabiltzala adierazi dute klubetik.

SASKIBALOA • JOSEBA DERTEANO

Bere historia luzean lehenengoz, Zornotza Saskibaloia Taldeak Zilarrezko Lehenengo Kopako finala jokatu du, zapatuan. Ez hori bakarrik. Etxean jokatu du final hori, Larrea kiroldegian eta zaleen aurrean.

Sarrerak arin saltzen dabiltza. Bazkideek bakarrik 400 erretiratu dituzte, aforo erditik gora. Beraz, marea berdeak ez du hutsik egingo eta egun handietako giroa egongo da. "Klubean eta herrian jendea oso ilusionatuta dago. Hitzordu historikoa da guretzat", dio Mikel Garitaonandia entrenatzaileak.

Sant Antoni Ibiza taldea izango da finaleko aurkaria. Talde biek antzekotasun bat baino gehiago dute. Esaterako, talde bien sailkapena sorpresa izan da. Gutxiak uste zuten euren multzoko lider amaitu zutela lehenengo itzulia, beste talde boteretsuago batzuen aurretik.

Kantxa barruan ere antzekoak dira. Ez daukate izar handirik eta

"Klubean eta herrian jendea oso ilusionatuta dago. Hitzordu historikoa izango da guretzat"

lorpenak talde indarrean oinarritzen dira. Kontuz ibili beharreko jokalarik bi dituzte balearrek. Alde batetik, Jordi Grimau beteranoa, taldeko saskiratzaile nagusia dena (13,65 batez beste). Bestetik, ACB ligan aritutakoa den Tautvidas Slezas pibot lituaniarra; 2,06eko garaieragaz, oso indartsua da barneko jokoan.

Defentsa gotorra eta eraso azkarrak dira zornotzarren armak horri aurre egiteko, eta jokaldi estatikoetan libre dagoen jokalaria ondo bilatzea.

Zornotzaren eta Ibizaren arteko

Bihar Master Kaiola hasiko da, eskualdeko sei ordezkari gaz

Zornotzako lau t'erdiko txapelketak zazpigarren aldia beteko du aurten. Beste behin ere, 22 urtez azpiko eta gazte mailako pilotaririk onenak batuko ditu astebururo

PILOTA • J.D.

Gutzira, 48 pilotari arituko dira lehian, hiru mailatan banatuta. Mutiletan maila bi daude, gazteena eta 22 urtez azpikoena, bakoitza hoge pilotarigaz. Emakumeetan maila bakarra dago, zortzi pilotarigaz.

Parte hartzaileetatik sei Durangaldekoak dira. Gazte mailan lau daude: Lagun Onak taldeko Urko Bullon zornotzarra, Lea taldeko Aingeru Bernaola mañariarra, Zaldibarko pilota klubeko Igor Pascual eta Lazkaoko Lapke taldeko Faben Ituarte atxondarra.

22 urtez azpiko mailan, Iurretako Olaburu klubean dabilen Iñigo Atutxa zornotzarra arituko da. Azkenik, emakumeetan,

Txumuluxueta taldean dabilen Ainhoa Ruiz de Infante otxandiarrrak parte hartuko du.

Bihar hasita, astebururo izango dira partiduak, maiatzaren 8ko finaletara arte. Txapelketak kanporaketa bidezko sistema du; irabazleak aurrera egingo du eta galtzailak etxerako bidea hartuko du.

Zapatu honetako lehenengo jardunaldian, 18:30ean, eskualdeko hiru pilotari arituko dira. Bullon, Bernaola eta Atutxa Arroitarren, Olaizolaren eta Rekalderen kontra arituko dira, hurrenez hurren.

Eskualdeko pilotarien artean, Faben Ituarte dago sasoirik onenean. Joan zen asteburuan, Euskal Herriko klubean arteko txapelketa irabazi zuen, binaka.



Txapelketako hainbat pilotari Master Kaiolaren aurkezpenean. JULENURIBE.COM

Mallabiko pilotalekuak Promozio txapelketako lehenengo finalerdia hartuko du gaur gauean

Bakaikoa-Elizegi eta Esteban-Gaskue bikoteen artean irtingo du lehenengo bikote finalistak

PILOTA • J.D.

Promozio mailako pilota txapelketa azken txanpan dago. Finalerdi bietako lehenengoa Mallabian ikusi ahal da gaur gauean 22:00etan hasiko den jaialdian. Joanes Bakaikoa etxarriarantzarrak eta Iker Elizegi asteasuarrak osatzen dute

bikote bat; Victor Esteban ezkaraitarrak eta Andoni Gaskue larrainzarrak bestea.

Lehenengo fase ederra osatuta, bikote biek merezita lortu dute finalerdietarako txartela eta ez dago faborito argirik gaurko partidura begira.

Elordi atarikoan

Atariko partiduan, etxeko pilotariak jokatu du, Aitor Elordik. Mallabiko aurrelariak Ladis Galarza izango du bizkarzain. Biek elkarregaz, Peio Etxeberriaren eta Xabier Tolosaren kontra jokatu dute atarikoan.



Atariko partiduko protagonistetariko bat Aitor Elordi mallabitarra izango da.

Ainara Urreta Jainaga

**OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO
PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

hitz

artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

1^o

ERAIKUNTZARAKO MATERIALA
Eider Rodriguez (Susas)

2^o

DENA AMETSA DEN IRUDIPENA
Leire Vargas (Elkar)

3^o

IZURDEEN AURREKO BIZITZA
Kirmen Uribe (Susas)

#salduenak

Eskararak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

Jokaldia

Kopari begira

Azkenaldian —azkeneko egunetan eta baita azkeneko hileetan ere— 'Kopa' hitza danon ahotan ibili da. Eta Kopa hitzarekin lotuta, Athletic, gure Athletic. Baina futbolean ez ezik, saskibaloian ere badugu kopa martxan, ACBko kopa. Lehiaketa horretan ez da gure talderik egon, baina saskibaloizaleok hainbat partidu ikusteko aukera izan dugu.

Eta egunotan, aurreko aldian idatzitakoa oker zegoela esanez, Teknei Zornotza Saskibaloia taldeko jokalariek, COVID 19a dela-eta atzeratuta zegoen Melilla-Grupo eta Alega Cantabria taldeen arteko partidua jarraitu zuten etxetik, eta Melillak irabazi zuen! Eta zer esan nahi du horrek? Zornotza Saskibaloia Taldea Zilarrezko Lehen Kopako finalera sailkatu dela. Finalera, alajaina! Eta finala non jokatu eta Zornotzan bertan! Hori bai bada itzela!

Teknei Zornotza S.T.- Sant Antoni Ibiza Feeling taldeek jokatu dute aurtengo Zilarrezko Lehen Kopako



Unai Zamalloa
Zubiaurre
Saskibaloia

Partidu borrokatua izango da. Bi taldeak bigarren sailkatuta daude ligan momentu honetan, bakoitza bere multzoan

"Burua eta bihotza ondoen uztartuta jokatzeko duen aukera gehiago izango du irabazteko"

finala. Larunbat arratsaldean izango da, Larreako Kiroldegian. Sarrerak salgai daude dagoeneko.

Partidu borrokatua izango da. Bi taldeak bigarren sailkatuta daude li-

gan momentu honetan, bakoitza bere multzoan. Teknei Zornotza 13 garaipenekin eta 7 porrotekin dago eta Sant Antoni Ibiza Feeling 14 garaipenekin eta 6 porrotekin. Beraz, antzerako garaipen eta porrot kopurua daukate.

Gainera, talde biek bermea eskaintzen duten jokalariek eta talde-jokoa dituzte. Horiek horrela, partidu batera ez dago aurreikuspen zuzenik egiteko aukera askorik. Burua eta bihotza ondoen uztartuta jokatzeko duen aukera gehiago izango du irabazteko eta garaikurra jasotzeko. Bide horretan, Mikel Garitaonadiak, zornotzarren entrenatzaileak, ondo kudeatuko du taldea. Aurrera, mutilak!

Amaitu aurretik, aipamen berezi bat egin gura diot Tabirako Baqueko mutilen taldeari. Lehenengo mailako Kopako txapeldunak dira. Mondragon Unibertsitatea taldearen kontra jokatu zuten finala, non eta Arrasaten bertan. Lehenengo zatian hartutako abantailari eutsi zioten bigarrenengan, eta garaikurra Durangora ekarri zuten. Zorionak!

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK 2022-2023

GEROA EREIN



Eskaintza akademikoa	Ate irekien jardunaldiak
•Automatizazioa eta Robotika Industrialak	Martxoak 24 18:00
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa	Martxoak 24 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua	Martxoak 23 18:00
•Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa	Martxoak 23 18:00
•Mekatronika Industrialak	Martxoak 23 18:00

www.mondragon.edu/Lanbideheziketa
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683



ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com



AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguessedo.com
inmoduranguessedo@gmail.com



Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

// ERAIKUNTZA BERRIA

IURRETA: Promozio berria. Udaletxe ondoan. 2 eta 3 logelako etxebizitzak. 2 komun. Terraza. Trastelekua eta garajea. Kalitatezko materialak. **C.E.E=A 230.000-TIK HASITA.**

// AUKERA

ZALDIBAR: Bilbao etorbidea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Iggogailua. Eguzkitsua. Hegoaldea. **C.E.E=F 118.000 €**
IURRETA: Dantzari. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. C.E.E= F. **140.000€ NEGOZIAGARRIA.**
DURANGO: 2 logela, (lehen 3), komuna, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara. Berriztatua. **C.E.E= E. 145.000 €**
DURANGO: Berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. **C.E.E=F. 130.000 €.**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

F.J.DE ZUMARRAGA: Erdialdean. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela-jangela. Terraza. **C.E.E=E 195.000 €**
ASTARLOA (JESUITAK): 100 m². 3 logela, komuna eta sukaldea. Terraza. Ganbara. **C.E.E=E 160.000 €**
IURRETA: Maspe. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. C.E.E=F garajea aukeran. **180.000 €**
ABADIÑO: Etxebizitza. 4 logela, 2 komun, sukaldea, jangela, eta egongela. Terraza. Lokal komertziala. Garajea. Aparkaleku pribatua. Txokoa. 300 m²-ko lorategia. Lanabesentzako txabola. **390.000 €.**
LANDAKO ETORBIDEA: 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. Ganbara eta garajea. **C.E.E=F. 258.000 €.**
ABADIÑO: Zeletabe. 4 logela, komuna, sukaldea eta egongela. 2 terraza. C.E.E=F
ALOKAIRUAN, EROSTEN AUKERAGAZ 600 € / 180.000 €.
DURANGO: Erdi berria. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza handia. Garajea. **C.E.E= E. 281.600 €**
ZALDIBAR: Fueros kalea. 114m². Altua. Eguzkitsua. Etxe osoak kanpora ematen du. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Aire girotua. 2 kotxerentzako garaje itxia. 42 m²-ko ganbara. Etxebizitzarekin bat egiteko aukera. Txokoa, estudioa. **CEE=F. 252.000 €**
MATIENA: 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta despentsa. Terraza. Iggogailua. **C.E.E=F 149.000 €**
MADALENA: 132m². 4 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. 2 terraza. 2 ganbara. Garajea eta bodega-trastelekua. **C.E.E=F 286.000 €**
EZKURDI: 175 m². 5 logela, 3 komun, sukalde handia eta egongela. Ganbara. Garajea aukeran. **C.E.E=F. 325.000 €**
KURUTZIAGA: 80 m². 3 logela, komuna, sukalde-jangela eta egongela. Terraza. Ganbara. **BERRIZTATUA. C.E.E=G 179.500 €.**
SANTA ANA: 3 logela, komuna, sukalde handia eta egongela. Berogailua. Leiho berriak. Ganbara. **C.E.E=E 125.000 €**
MATIENA: Erezena. 3 logela, komuna, sukalde-egongela eta despentsa. Terraza. Ganbara. Iggogailua. **C.E.E=E 155.500 €**
MATIENA: Etxebizitza altua. 3 logela, komuna eta sukalde handia. Iggogailua. Ganbara. **CEE=G.120.000 €**
IURRETA: Santa Maña. 3 logela, komunak, egongela eta sukaldea. 15 m²-ko trastelekua. Parking pribatua. **C.E.E=F 160.000 €**
IURRETA: Bixente Kapanaga. 92 m². 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. Eguzkitsua. **C.E.E=G 205.000 €**
ZALDIBAR: Euskal Herria. 2 logela, 2 komun sukaldea eta egongela. Terraza. Garaje itxia. **C.E.E=E 198.000 €**
ZALDIBAR: 95 m². 3 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 2 terraza. Garajea. **C.E.E=F 206.000 €**

// ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO: Aramotz auzunea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Prezio ezin hobea.
DURANGO: Pablo Pedro Astarloa. Pisu berriztatua. 3 logela, komuna, sukaldea jantokiaz eta egongela.
DURANGO: Antso Estegiz. 3 logela, 2 komun, sukalde-jangela eta egongela. Ganbara.
DURANGO: Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.
ABADIÑO
ETXEAZPIA KALEA: Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ
ELIZONDO ETXETALDEA: Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.
BERRIZ: 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.
ATXONDO: 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

//LURSAILAK SALGAI

GAZTELUA: 10.000 m²-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.
IURRETA: 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.
//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI
BERRIZ: Andikona auzoa. Baserri ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.
BERRIZ: Eitua auzoan. Baserri ederra. Berriztatzeko. Lursail ederra inguruan. Kokapen eta ikuspegi politik.
ATXONDO: AXPE. Baserri ederra salgai. Berriztatzeko. Kokapen izugarria
ATXONDO: ARRAZOLA. Izugarriko baserria salgai. 40.000 m²-ko lur saila. Berriztatzeko.

MAÑARIA: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.
MAÑARIA: Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m²-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.
MENDATA: Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berriztatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.
DURANGO: Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatzen.
//BULEGOAK ALOKAIKIRUAN
ABADIÑO
30 m²-tik gorako bulegoak. 300 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.
//GARAJE ITXIAK SALGAI
Durangon, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.
//LOKALAK ALOKAIKIRUAN
Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.
//LOKAL INDUSTRIALA ALOKAIKIRUAN
BERRIZ: Eitua industrialdea. 800 m²-ko pabilioia. Aldagelak, komuna eta ofizinekin.
MATIENA: 460 m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

www.inmoduranguessedo.com



DURANGO 62 m²
4 logela
JUAN DE IZAR: Egongela, sukalde eta komuna. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. (Ekiadea/mendebaldea/Iparraldea). Pisu altua. Argitsua. Ikuspegi ederrak. Berdegunetatik gertu, eta herriko sarrera/irteera bat ere hurbil dago. Eraberritze integrala/Aukera asko.
99.000 € C.E.E: E



DURANGO 80 m²
2 logela
LAUBIDEA: Egongela, sukalde jantzia, 2 logela, 2 komun eta eskegitokia. Etxe osoak kanpora ematen. (Mendebaldea) Leku onean kokatua. Iggogailua. Gas naturala. Ezin hobea. 10, 125 m²-ko garajea eta 11,38 m²-ko trastelekua.
218.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 80 m²
2 logela
MONAGO TORRE: : 65 m². Egongela, sukalde, 2 logela, komuna eta despentsa. 2 balkoi. EZIN HOBEA/GUZTIZ BERRIZTATUA. (Instalazioak, leihoak, gas naturala, kristal bikoitzeko leihoak, haritzeko zorua...) Etxe osoak kanpora ematen du (Ipar/hegoaldea) Oso argitsua. Herrigunetik metro gutxitara. ITE orainsu pasatutakoa.
187.000 € C.E.E: E



IURRETA 70 m²
3 logela
ZUBIAURRE: 70 m² + 43 m²-ko terraza. Halla, egongela, sukalde jantzia, 3 logela, komuna eta despentsa. Etxe erdiak kanpora ematen du. (ekialdea) Leku onean kokatuta. Hobekuntza batzuk behar ditu.
173.000 € C.E.E: F



DURANGO 85 m²
3 logela
ASTEPE: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia eta galeria. Iggogailua. Etxe osoak kanpora ematen du. (Hego-mendebaldea). Leku onean kokatua. Garajea eta 6 m²-ko trastelekua. Argitsua. Ikuspegiak.
249.000 € C.E.E: Bidean



DURANGO 78 m²
3 logela
SASIKOA: Egongela, sukalde jantzia, 3 logela eta komuna. Gas naturala. Etxe osoak kanpora ematen du. (Iparraldea) Leku onean kokatua. EZIN HOBEA. Garajea eta trastelekuarekin + 26.000 €. Garajearekin + 15.000 €.
206.000 € C.E.E:E

//DURANGO

ANTSO ESTEGIZ: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Balkoia. Iggogailua. Garaje itxia aukeran. **180.000 € / E.E.Z=E**
ASKATASUN ETORBIDEA: 3 logela, sukaldea, egongela, despentsa eta 2 komun. Iggogailua. Garajea eta trastelekua. **320.000 € / E.E.Z=E**
BARRENKALEA: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**
EZKURDI PLAZA: 4 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Iggogailua. **LEHEN 321.500 € / ORAIN 250.000 € / E.E.Z=F**
GOIENKALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. **LEHEN 155.000 € / ORAIN 149.000 € / E.E.Z= G**
KOMENTU KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggogailua. Ganbara eta garaje itxia. **230.000 € / E.E.Z=E**
SAN AGUSTINALDE: 2 logela, sukaldea, despentsa, egongela eta 2 komun. 2 balkoi. **200.000 € / E.E.Z=F**
SAN FRANZISKO: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Garaje itxia. Iggogailua onartuta. **195.000 € / E.E.Z=E**
SANTIKURUTZ KALEA: Etxebizitza bifamiliarra eraikitzeko 600 m²-ko lurzoria. **LEHEN 640.000 € / ORAIN 550.000 €**
//ABADIÑO
ALFREDO BAESCHLIN: Etxebizitza eraikitzeko lursaila. **180.000 €.**
//BERRIZ
MURGOITIO AUZO: Berreraikitzeo baserria lurzorua. **290.000 €**
//IURRETA
DANTZARI KALEA: 2 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Iggogailua. **153.000 € / E.E.Z=E**
OROZKETA AUZO: 4 logela, 2 sukalde, egongela eta 2 komun. Terraza. Lursailagaz. **LEHEN 650.000 € / ORAIN 595.000 € / E.E.Z=E**
//IZURTZA
ELIZALDE AUZO: 4 solairuko etxea. 3 logela, 3 komun, sukaldea, garbitokia eta egongela. Terraza. Lorategia eta garajea. **620.000 € / E.E.Z=E**
//MATIENA
TRAÑABARREN: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Iggogailua. Ganbara. **175.000 € / E.E.Z=E**
//OTXANDIO
GONBILAZ AUZO: Baserria. 5 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. Terraza. Ganbara. Lursailagaz. **420.000 € / E.E.Z= BIDEAN.**
//ZALDIBAR
MIREN MAORTUA: 3 pisuko etxea. 4 logela, sukaldea, garbitokia, egongela eta 3 komun. Terraza. Lorategia eta txokoa. Garajea eta trastelekua. **525.000 € / E.E.Z=E**
//ALOKAGAI
Etxebizitzak, bulegoak, pabilioiak, lokal komertzialak eta garajeak. Bulegoan galdetu.
//GARAJEAK SALGAI
Durangon eta Iurretan, aukera desberdinak: garaje itxiak, partzelak eta partzelak trastelekuagaz.
//BERRIAK
DURANGO
ALLUITZ KALEA: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela balkoiarekin eta 2 komun. Iggogailua. **220.000 € / E.E.Z=F**
BERRIZ
PADURE KALEA: 3 logela, sukaldea, egongela eta 2 komun. **125.000 € / E.E.Z=F**

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 11 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 12 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurreondo 22 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 13 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL Askatasun etorb. 19 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 14 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 15 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 16 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 17 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENEN 14:00AK ARTEKO EPEA

**GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA**



Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**

Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11. DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozategia



Zorionak, **Aizpea**, zaldibarko senideen partez! Zortzi mila mosu poloto.



Zorionak, **Nile!** Zaldibarko senideen partez musu potolo bat.



Zorionak, bikote! Besarkada eta mosu potolo bana etxekuen partez, Atlantikoaren bi aldeetatik.

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 16° / 6° ☁

ASTELEHENA ↓ 12° / 8° ☁

EGUAZTENA ↓ 17° / 11° ☁

DOMEKA ↓ 14° / 7° ☁

MARTITZENA ↓ 18° / 10° ☁

EGUENA ↓ 14° / 9° ☁



clínica dental hartzklinik
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenez, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com



Lauhortza

Bixente Aizpurua Eguren
Irakaslea/ Jubilatua



Bankuak, zertarako?

Bankuak gure dirua kudeatzeko jaio ziren, baina gaur egun gure kontura bizitzeaz gain oztopoak jartzeko baino ez dira bizi.

Urtero milioien eta milioien etekinak dituztela ozenki eta harro iragartzen dituzte. Eta dena gure diruari esker.

Bezeroei eskertu eta erraztasunak eman beharrean trabak baino ez dizkigute jartzen. Tasak ordaindu nahi badituzu hamarrak baino lehen joan behar zara, leihatilatik dirua atera nahi baduzu diru-kopuru batetik gorakoa izan behar da eta, bestela, kajerora bideratzen zaituzte, hamabietatik atzera joaten bazara ordua eskatu behar duzu. Ordua eskatzen duzunean makina bati hizketan ari zara eta gero, askotan, ez dizute deia itzultzen, komisiok gero eta handiagoak dira, etab., etab., etab.

Gero eta zerbitzu gutxiago dituztenez, milaka eta milaka langile kaleratzen dituzte eta horren aurrean langileek planto egin beharrean, egoera horren aurrean haien kontra joan beharrean, goitik datozkien agindu guztiak betetzen dituzte bezeroen kaltetan.

Laster dena aplikatiboetatik egitera behartuko gaituzte eta zer gertatzen da nagusiekin edo eta sistema horren kontra gaudenekin?

Bankuak ez dira konturatzen honelako joerekin bizitza guztian bezeroak izan dituztenak baztertzen ari direla?

Ziur nago galtzen ari garen zerbitzu hauek guztiak bankuren batek martxan jarriko balitu merkatu zabala eta oparoa izango lukeela eta ni bezalako bezero piloak izango lukeela ate joka.

Ea bankuren batek kontuan hartzen duen erroka hau eta berriz zerbitzuak humanizatzen dituen. Hala bedi!

“Nagusia naiz, baina ez inozoa”

DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa



946 46 20 41
www.sukia.com